



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

---



Zuzenbide Fakultatea  
Facultad de Derecho

# ZUZENBIDE FAKULTATEKO IRAUNKORTASUN-DEKALOGOIA 2013/2014

*Planeta "mugatu" batek ezin die baliabideen gehiegizko ustiapenari eta kontrolik gabe botatzen diren hondakin eta isuriei aurre egin. Horrenbestez, iraunkortasuna lortzen saiatu behar dugu, hau da, gaur egungo beharrei etorkizuneko generazioek euren premiei aurre egiteko beharko dituzten baliabideak arriskuan jarri gabe erantzuten dieten jarduerak gauzatu behar ditugu.*

## AURKEZPENA

UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateak ingurumenarekiko jardunbide egokiak sustatzeak duen garrantzia azaltzen duen Iraunkortasun-dekalogoia prestatu du. Dekalogoarekin batera hura osatzeko prestakuntza-ikastaro bat programatu dugu, Fakultateko talde guztien artean (ikasleak, irakasleak eta administrazioko zein zerbitzuetako langileak) oinarrizko helburu bat lortzeko xedez: Garapen Iraunkorra.

Eguneroko bizimoduan aldaketa txikiak eginaz helburu hori lortzen lagun dezakegu. Ingurumenarekiko jardunbide egokiak gure ohiturak aldatu eta horrela baliabideen kontsumoa eta sortzen diren hondakinen kopurua murrizteko balio duten zenbait gomendio dira.

Honako eremu hauek izango dira jorratuko ditugunak:

- Ura
- Energia
- Papera
- Tonerrak
- Bulegoko materiala
- Altzariak
- Garbiketa eta hondakinen kudeaketa
- Bestelakoak

## 1. URA

Ura baliabide berriztagarria da, baina erabiltzen den heinean kalitatea galtzen du apurka-apurka. Gaur egun inolako neurririk gabe kontsumitzeko dagoen joera ez da iraunkorra, eta urritasun-arazoak ekar ditzake. Gainera, uraren kostua hornidura- eta arazketa-kostuekin lotu ohi dugun arren, are handiagoa da beharrezko ondasun kolektibo legez duen benetako kostua.

*Uraren hiriko zikloan “goranzko” uraren zerbitzua, “beheranzko” urarena eta saneamenduarena hartu behar dira kontuan. “Goranzko” zerbitzuak ibai eta akuiferoetako ura jaso, bildu (urtegiak...) eta hiriko biltegiatarra garraiatu behar du. Biltegi horietan hasten da “beheranzko” zerbitzua, edateko ura araztea eta sarean zehar zabaltzea barne. Azkenik, estolderiaren bidez jasotzen diren itzulerak bideratu eta isuria hartuko duten ekosistemak behar bezala babestu eta mantendu ahal izateko hondakin-ur horiek araztegiatan behar bezala tratatzean datza saneamenduaren atala.*

*“Goranzko” uraren kostua erregulazio-azpiegituren, distantziaren eta hiriraino egin beharreko ponpaketaren arabera izaten da. “Goranzko” uragatik ordaintzen den kostua ez da nahikoa izaten kasu bakoitzeko azpiegiturek amortizatzeko eta kudeatzeko dakartzen benetako kostuak berdintzeko. “Beheranzko” uraren kostuari dagokionean, aldiz, azpimarratu beharra dago tarifak normalean ez dituela barne hartzen sarean sistematikoki berritzeko beharrezkoak diren inbertsioak: biltegiak, arazketa-sistemak, hiri-sareak, ponpaketak eta kontrol-sistemak udalek urtez urte egiten duten ahaleginaren emaitza dira, eta herritarrek ordaintzen dituzte modu batean edo bestean. Saneamenduari dagokionean, 90eko hamarkadaren amaieran EBk hirietako itzulkinak arazteko obligazioa ezarri zuen, eta diru-funts handiak eman zituen hori ahalbidetzeko instalazioak egokitzeko. Azpiegitura horiek berritu behar diren egunean arazoak izango ditugu, eta arazooi instalazio horiek kudeatzearen ondoriozko gastu handiak ordaindu beharrak ekarriko dituenak ere gehituko zaizkie.*

### Horregatik da horren garrantzitsua jardunbide egokiak bultzatzea:

- Euskadin pertsona bakoitzak 209,85 litro ur gastatzen ditu egunean, batez beste.  
***Ez utzi ura besterik gabe isurtzen eskuak edo hortzak garbitzen dituzun bitartean, ez xahutu urik: erabili ondoren, itxi txorrota behar bezala.***
- Hondakinak komunitate behera botatzeak ura zikintzen du eta arazo larriak sor ditzake araztegiatan.  
***Komuna ez da zakarrentzia, beraz, ez erabili hala balitz bezala. Hondakin-urak ez zikintzen, ibaiak ez kutsatzen eta uraren kontsumoa murrizten lagunduko duzu horrela.***
- Segundoko ur tanta bat galtzen duen txorrota batek 30 litroko xahubidea dakar egunean, eta hautsitako zisterna batek egunean 150 litro xahutzea ekar dezake.  
***Txorrota edo komunaren bat gaizki dabilela edo isuri zein jarioaren bat duela ikusiz gero, jakinarazi atezaintzan.***

**Iturriak jarri ditugu guztientzako eskuragarri bakoitzak bere botila edo kantinplora urez bete dezan, horrela ontziratutako edariekin eragiten dituzten plastikozko hondakinak murrizteko asmotan. Xede horrekin, baita ere, vending makinetako kafea, tea edo txokolata hartzeko kikara ere etxetik**

**ekartzera ohitzeko gomendioa luzatu nahi dizugu, makinek edaria edalontzirik gabe erosteko aukera ematen baitute.**

## **2. ENERGIA**

Energia-kontsumoa da gure Fakultateko gastuan errazen kontrola daitekeen kontusailik handiena. Gero eta gailu elektriko gehiago erabiltzen direnez, kontsumoak eta, ondorioz, gastuak berak ere gora egin dute nabarmen. Zenbait jardunbide ezarriz gero, % 50 ere aurreztu daiteke.

**Horregatik da horren garrantzitsua jardunbide egokiak bultzatzea:**

- Ez da egia ordenagailua itzaltzeak haren bizi erabilgarria murrizten duenik. Motorra da ekipoak guztira behar duen energiaren % 70 xahutzen duena. Gama ertaineko batek 60W erabiltzen ditu piztuta dagoenean, 6,5W itxaronaldian eta W1 itzalita. **Gure bulegoetan erabiltzaile bakoitzari dagokio ordenagailuetako "energia aurrezteko" sistemak konfiguratzea, erabiltzen ari ez direnean ordenagailuaren pantaila itzaltzea (bileretan, gosari garaian...) eta ordenagailua, inprimagailuak eta gainerako gailu elektrikoak itzaltzea bai ordubete baino gehiagoan erabiliko ez badituzte, bai lanaldia amaitzerakoan, eta baita asteburuak eta oporrak baino lehen.**

- Itzalita egon arren ere, gutxienerako energia-kopuru bat kontsumitzen dute ordenagailuek. **Lanaldia amaitzerakoan korrante-elikagailua ere deskonektatzea komeni da.**

- Ordenagailu gehienek ohi baino bi aldiz energia gehiago erabiltzen dute pantaila-babesa abian jartzeko, eta erabat beltzak direnek baino ez dute benetan energia aurrezten. **Beltzean konfiguratu ezazu 10 minutuz gelditu egonez gero aktiba dadin.**

- Inprimagailuek, fotokopiagailuek, faxek eta abarrek, banaka erabiliz gero, funtzio anitzeko gailuek baino gutxiago kontsumitzen dute, baina funtzio bat baino gehiago egin behar izanez gero askoz eraginkorragoak dira funtzio anitzeko aparailuak. Pantaila lauek (LCD) % 50 gutxiago kontsumitzen dute eta erradiazio gutxiago igortzen dute. Ordenagailu eramangarriek monitore arrunta duen mahaigaineko edozein PCk baino gutxiago kontsumitu ohi dute (% 50 eta % 80 bitartean, ezaugarrien arabera). **Ordenagailua erosi aurretik benetan behar ditugun prestazioak zeintzuk diren eta ekipo bakoitzaren energia-eraginkortasuna zein den hartu behar da kontuan.**

Gure ikastegiko energia-faktura osoaren % 30 inguru argiztapenaren kostuari dagokio. Aplikatu ditzakegun hobekuntza teknikoez gain, badaude bakoitzak egin ditzakegun beste hainbat eta hainbat jardunbide egoki ere. Hutsik dagoen bulego edo ikasgela batean argia piztuta uzteak baliabideak xahutzea dakar eta alferreko gastua eragiten du. Geure etxeetan arreta handiagok jokatu ohi dugu halako kasuetan. Mitoa besterik ez da argi fluoreszenteak itzaltzeak, behar ez baditugu ere, piztuta uzteak baino gehiago kontsumitzen duela.

**Beti da hobeto argiak itzaltzea, nahiz eta gela erabiliko ez den tartea txikia izan. Eta argiak piztu aurretik argi naturala ahalik gehien aprobetxatzen lagun dezaketen neurriak hartu behar dira, esate baterako, pertsianak eta gortinak ongi zabaltzea.**

Neguan aurrez dezagun gasa berokuntzan.

**Berogailu-sistemak itzali edo gutxienerako indarrean jarri eskola- eta lan-orduetatik kanpo zein bulego edo gelaren bat aldi baterako edo oro har hutsik egonez gero.**

***Berogailua martxan den bitartean ateak eta leihoak itxita daudela egiaztatu, horrela galerak eta zarrastelkeria ekiditeko.***

### **3- PAPERA**

Teknologia berriek asko lagundu dute paperaren kontsumoa murrizten, baina paperik gabeko unibertsitatea sortzea errealitate urrun dagoen promesa bat baino ez da: gure hondakinen % 90 paperetik datoz.

Paper-ekoizpenak oso ondorio negatiboak ditu ingurumenarengan, izan ere, zuhaitzak, ura eta energia bezalako baliabide naturalak erabiltzeaz gain kloroaren eta haren deribatuen zurtzaileen ondorioz kutsadura ere eragiten baitu hondakin organokloratu ekotoxiko eta biometagarriak sortzen dituen heinean.

Mota askotako papera dago salgai merkatuan, eta guztiek ez dute eragin berbera ingurumenarengan, paper-orearen jatorriak eta zurtze-prozesuak zeresan handia izaten baitute horretan. Zentzu horretan oso erabilgarriak dira erakunde baimenduek paper-orearen jatorriaren berri emateko ezartzen dituzten etiketak. Zurtze-prozesua nolakoa den jakiteko, aldiz, oso erabilgarriak dira TCF eta ECF kalifikazioak: lehenak "erabat kloro gabea" esan nahi du eta bigarrenak "oinarrizko kloro gabea", eta biak ere ingelesezko siglak dira. Aukerarik onena, jakina, TCF kalifikazioduna da, oxigenoa eta ozonoa bezalako produktu alternatiboak erabiltzen baititu prozesu horretan. ECF papera ekoizterakoan erabiltzen den gas-kloroak, aldiz, ura kutsatzen du.

**Paper birziklatua erabiltzearen** aurka daudenek garestiagoa, kalitate okerragokoa edo itsusiagoa dela edo inprimagailu eta fotokopiagailuetan arazoak ematen dituela **argudiatu** ohi dute. Gaur egun, ordea, merkatuan erabilerara ugaritarako prestatuta dauden hainbat eta hainbat aukera daude: kalitate onekoak eta oso prezio lehiakorretan, paper "zuria" bezain merkeak edo are merkeagoak eta hobeak diren produktuak.

Itxurari dagokionean, gustu kontua da, baina egia da paper birziklatuaren estetika asko hobetu dela eta, gainera, ingurumenarekiko sentsibilizazioa aurreiritzi hori gainditzen laguntzen ari dela. Are gehiago, mota horretako papera erabiltzen dutenen irudi publikoa hobetzen laguntzen duen marketinerako bereizgarri bat da, ingurumenarekiko konpromisoa erakusten baitu. Gainera, errazagoa da mota horretako paperean irakurtzea distira gutxiago baitu.

Azkenik, gure instalazioetan izan ohi ditugun bolumen txikiko makinetan ez du zertan zuntz berrizko paperak baino arazo gehiago eman. Gama altuagoko makinetan bai sor daitezke buxadura-arazoak kalitate bermatuzko paper birziklatua erabili ezean, baina gauza bera gertatzen da gama ezberdineko eta kalitate txarreko papera erabiliz gero ere, paper hori zuntz berrizkoa zein birziklatua izan. Horrenbestez inpresioak edo fotokopiak egiteko kalitatea bermatuta duen paper birziklatua erostea komeni da.

Paper-premiak murriztu eta horrela kostua eta espazioa aurreztu ahal izateko onena papera zentzuz erabiltzea da.

**Horregatik da horren garrantzitsua jardunbide egokiak bultzatzea:**

***Posible den heinean papera erabiltzea ekiditea.*** Ikastegian hainbat ekimen jarri ditugu abian hori lortzeko, besteak beste, dokumentuak formatu digitalean gordetzea, beharrezko kopien kopurua optimizatzea, informazioa partekatzea pertsona bakoitzari

kopia bana eman beharrean, Intranetak, posta elektronikoak, telefonoak eta abarrek eskaintzen dituzten abantailak profitatzea, aktak modu digitalean sinatzea, ikasleek irakasle bakoitzari ematen zizkioten txartel pertsonalak kentzea, gure Webaren informazioa eta eguneraketa indartzea.

***Beti paper birziklatua erabiltzea.***

***Beharrezkoak ez diren edo zuriune asko dituzten dokumentuak inprimatzea ekiditea*** (adibidez powerpoint aurkezpenak). Klaseko lanak ***inprimatu aurretik izan ditzaketen akatsak egiaztatzea*** eta beharrezko hobekuntzak egitea ***esate baterako "aurrebista" aukera erabilita***: marjinak egokitzea, paragrafoak modu eraginkorrean banatzea, orriei dagozkien zenbakiak jartzea, letren tamaina murriztea, etab.

***Posible den guztietan paperaren alde biak erabiltzea*** fotokopiak ateratzeko zein inprimatzeko. Halaber, ahal den neurrian, baita ere, ***testuak moldatzea*** agiri, liburu edo argitalpen bateko bi orrialde orri estandar batean sar daitezten.

***Barne-dokumentuak inprimatzeko papera berrerabiltzea, dela paper birziklatua erabilita, dela orriaren alde bietan inprimatuta.***

***Zirriborro kalitatean inprimatzea*** tinta xahutzea ekiditeko eta berrerabilpena, bereziki barne-dokumentuen kasuan, eta birziklapena errazteko.

***Balio ez duen papera*** horretarako edukiontzietara botata ***birziklatzea***. Papera edukiontzian jarri aurretik interesgarria da, ahal den neurrian, grapak eta plastikozko elementuak kentzea eta papera apurtzea, horrela edukiontzian hartuko duen espazioa murrizteko.

***Bulegoetan lan-mahai bakoitzaren ondoan kutxatxo bat edukitzea erabilgarria izan daiteke berrerabilpena eta birziklapena bultzatzeko (oharretarako koadernotxo bat egin daiteke orriokin).***

***Inprimatuta entregatu beharreko lanen kopurua murriztea, eta hala egitea eskatuz gero paper birziklatuan, azal xumearekin, kolorerik gabe eta aurpegi bietan idatzita entregatzeko eskatzea.***

***Gutun-azalak eta karpetak ahal bezain beste aldiz berrerabiltzea.***

## **4 TONERRAK**

Papera murrizteko aipatu ditugun neurri guztiek inprimagailu eta fotokopiagailuetarako tonerren kontsumoa ere murriztea eragingo dute. Elementuok oso kutsagarriak izateaz gain gizakien osasunerako arriskutsuak ere badira.

Puntu honetan berariazko jardunbide egokiak aplikatu behar dira, bereziki bi hauek:

***Posible den neurrian, inprimagailu eta fotokopiagailuetako tonerretan kartutxo birziklatuak erabiltzea.***

***Berrerabili ezin daitezkeen toner/kartutxo hutsak horretarako jarritako edukiontzira botako dira.***

## 5 BULEGO-MATERIALA

Produktu-talde heterogeneoa da, bereziki kostu txikiko produktuek osatzen dutena: arkatzak, boligrafoak, errotuladoreak, markagailuak, zuzentzeko likidoak, lekeda, plastikozko karpetak, tintak, eta abar.

Material horrek eragin handia izan dezake ingurumenarengan plastikoetan erabiltzen diren substantzia kimiko arriskutsuen, disolbatzaile agresiboen, konposatu organiko lurrunkorren (KOL), metal astunen eta abarren ondorioz.

Bulego-materiala erosterakoan benetan behar duguna bakarrik hartzen saiatu behar dugu, gehiegizko erosketarik ez egiteko. Oso ohikoa izaten da halakoak gertatzea, erraz eros daitezkeen produktu merkeak direnez ez baitzaio horrenbesteko arretarik jartzen horien kontsumoari.

Materiala ongi eta kontuz erabiltzeak zarrastelkeria ekidin eta haren bizitza erabilgarria luzatu dezake, eta gainera, dirua aurrezten laguntzen du.

Hona hemen bulego-material nagusiaren inguruan kontuan hartu beharreko zenbait ingurumen-irizpide:

PRODUKTUA	EZ DIRA GOMENDAGARRIAK	AUKERA
Artxibagailuak eta karpetak, zorroak, dosierrak, koadernaketa-materiala...	<input type="checkbox"/> Material konposatuak <input type="checkbox"/> PVCzko produktuak	<input type="checkbox"/> Kartoi birziklatuzko, polipropilenoazko edo polietilenoazko produktuak.
Errotuladoreak eta boligrafoak, arkatzak, markagailuak...	<input type="checkbox"/> Erabilera bakarrekoak, PVCzkoak, lakatuak zein disolbatzaile organikoz egindakoak diren produktuak.	<input type="checkbox"/> Bestelako plastikoak, plastiko birziklatua, metala, egurra, berriz betetzeko modukoak, lakarik gabeak, ur-oinarridunak, portaminak, arkatz fluoreszente lehorrak...
Itsasgarri barrak eta lekeda unibertsalak	<input type="checkbox"/> Disolbatzaile organikodun produktuak	<input type="checkbox"/> Ur-oinarria duten produktuak <input type="checkbox"/> Berriz betetzeko modukoak
Zuzenketa-zintak	<input type="checkbox"/> Berriz bete ezin daitezkeen zintak	<input type="checkbox"/> Berriz betetzeko moduko produktuak <input type="checkbox"/> Paper birziklatuzko produktuak
Zinta itsasgarriak	<input type="checkbox"/> PVCzko produktuak	<input type="checkbox"/> Polipropilenoazko edo zelulosa azetatozko produktuak

## 6 ALTZARIAK

Fakultaterako altzariak erosterakoan funtzionaltasuna eta ergonomia oso kontuan hartu beharreko kontuak dira, Unibertsitateak ondasunak eta zerbitzuak zuzkitzeko egiten dituen lehiaketa publikoen ondoriozko homologazio-prozesuek uzten duten heinean, behintzat. Hala ere, mota horretako produktuak erosterakoan ingurumena kontuan hartzea oso garrantzitsua da, eta ez gara fabrikazio-prozeduran zehar sortzen diren ondorioez bakarrik ari (esaterako, emisio kutsakorrak), baizik eta fabrikazio-materialaz beraz ere. Material askok toxikoak, kaltegarriak eta kutsakorrak diren substantziak dituzte, hala nola, disolbatzaile organiko lurrunkorrek, nikela bezalako metal astunak eta abar. Kontuan hartu beharrekoa da, baita ere, bulegoetarako altzariak fabrikatzerakoan asko erabili ohi dela egurra. Apusturik onena modu iraunkorrean kudeatutako basoetako egurrez egindako altzariak erostea litzateke, baso-egiaztagirien sistemek eskaintzen duten bermea kontuan hartuta egin ere, modu ilegalean moztutako egurrak oso ondorio larriak ekartzen baititu, hala nola, bioaniztasuna zein landare espezieen emankortasuna eta bizitasuna murriztea, edo gizartearekin zerikusia duten alderdiak urratzea: langileen ongizatea, bertako herritarren interesak...

Azkenik, dagoeneko balio ez duten, hondatuta dauden edo zaharkituta geratu diren bulegoko altzariak kudeatzerakoan aukerarik onena beste ikastegi batzuei eskaintzea (beti ere hondatuta ez badaude) edo bestelako administrazio, elkarte edo GKEei ematea izaten da. Badago beste aukera bat ere, berreskuratze-enpresen bitartez altzari horien birziklapena kudeatzea, hain zuzen. Horrela eginez gero, altzariok berreskuratu eta berriro erabili daitezke, baita geure ikastegian ere (adibidez, bisitarietzako aulkiak tapizatzea edo mahaia berreskuratzea).

## 7 GARBIKETA ETA HONDAKINEN KUDEAKETA

Garbiketa-lanei dagokienean, zeregin horretaz arduratzen den enpresak lanerako erabiltzen dituen produktu kimikoen berri eman beharko du aldizka, ingurumenarekiko ahalik eta leunenak direla egiaztatzeko (biodegradagarriak, fosforik gabeak, etab.). Gainera, jaramon egin beharko die fabrikatzailearen dosifikazio-jarraibideei.

Garbi eta zainduta dauden guneak atseginagoak dira guztiontzat. Geletan, ikasteko eremuetan zein informatika-geletan hondakinik ez uzteak (paperezko zapiak, ur-botilak, gastatuta dauden boligrafoak...), gune horietan ez jateak, edateak edo erretzeak eta jarduera horien arrastorik ez uzteak guztienganako errespetua erakusten du, eta guztiok bete beharreko obligazioa da. Garbitzaileek hondakinak gaika biltzeko egiten duten lana ezinbestekoa da. Zeregin hori ahalik eta hobekien bete ahal izan dezaten, Fakultatean ikasten edo lan egiten dugun guztiok lagundu



egin behar dugu: botatzen dugun guztia gure instalazioetan hondakinak gaika biltzeko ditugun edukiontzietara bota behar dugu, gauza bakoitza dagokion ontzira.

Fakultatean sortzen diren hondakin ezberdinak behar bezala kudeatuko direla bermatu ahal izateko hitzarmenak ditugu hainbat enpresa espezializaturekin. Mota horretako akordioak ditugu ekipamendu informatikoa, zaharkitutako edo balio ez duten altzariak, fluoreszenteak, tonerra, pilak edo papera ingurumenari buruzko legedia betetzen den berme osoz kentzeko.

## 8 BESTELAKOAK

☐ Zaharkitutako ekipo informatikoak eguneratu eta beste zeregin batzuetarako erabiltzea. Hori egitea ezinezkoa denean informatika-zerbitzuko burua jakinaren gainean jarriko da materialaren behar bezalako birziklapena kudeatu dezan.

☐ Sortutako hondakinak eta erabilia dauden edo botatzeko modukoak diren bestelako baliabideak ahal den neurrian berrerabili eta bestelako erabilerak ematea (adibidez: kutxak, karpetak, koadernatzeko materiala, etab.).

☐ Erabilera bakarreko pilen ordez bizitza erabilgarri luzeagoa duten berriz kargatzeko pilak erabiltzea. Xahututa dauden pilak berrikuntza ataleko kalitate eta ingurumen arduradunak horrexetarako daukan edukiontzira bota behar dira.

☐ Erabilera bakarreko produktuak erabiltzea ekiditea eta berriz betetzeko modukoei lehentasuna ematea.

☐ Hondakin higieniko-sanitarioak (adibidez, emakumeen konpresak) nesken komunetan horretarako dauden edukiontzietara bota behar dira.

☐ Posible den guztietan produktu birziklatuak erostea.

☐ Ahalik eta bilgarri txikiena duten produktuak aukeratzea, horrela sortzen diren hondakinen kopurua murrizteko.

☐ Munduko edozein tokitan lan-esplotazioa edo genero-diskriminazioa tarteko dela manufacturatu diren produktuak erostea ekidin.

☐ Mugikortasuna. Etxetik lantokirako edo ikastokirako joan-etorriak dira auto-ilara, zarata, kutsadura eta abarren iturri nagusia. Unibertsitateak berak ordeko mugikortasun-sistemak sortu ditu eta pizgarriak ematen ditu eraikinok erabiltzen ditugunok garraio bide iraunkorragoak aukera ditzagun. Ikastegi honetan sustatu nahi ditugun mugitzeko moduak honako hauek dira, lehentasun hurrenkera honetan: oinez, bizikletaz (horiek aparkatzeko pare bat gune daude) eta garraio publikoa.

Ezinbestean ibilgailu pribatua erabili behar den kasuetan aukerarik eraginkorrena ibilgailu partekatua dela uste dugu.

II, AZL edo ikasleen arteko bilerak egiteko bi Campusen arteko joan-etorriak saiheste aldera, azken urteetan bideokonferentzia-ekipoak erabiltzearen aldeko apustua egin dugu.

## 9 SENTSIBILIZAZIOA

Ingurumena Hobetzeko Planaren barruan Fakultatea osatzen duten talde guztiei zuzendutako sentsibilizazio-kanpaina egin nahi dugu (Neurria: SEN-1), lehengaien kontsumoa eta sortutako hondakinak murrizteko xedez.

Geure buruari ezarritako helburua unibertsitate-zentro bati dagozkion jarduerak gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren produktuen kontsumoa murriztea da, jakina. Hau da, paperaren, tonerraren, erregaiaren eta abarren kontsumoa murriztu nahi dugu. Horrela behera egingo luke sortutako hondakinen kopuruak. Horri birziklapen-tasa handiagoa batuz gero, hondakinen kontsumoa/sorrera "tandema" murriztu egingo litzateke.

Nola lortu halako aldaketa bat eguneroko jardunbideetan? Nola lortu jarrera-aldaketa hori beste espazio eta beste produktu batzuetara ere zabaltzea? Ez dugu orain arte bezala ez orain arte bezainbeste kontsumitu behar. Esaten digutenez, ezin dugu horrenbeste hondakin sortu ez xahutu. Baina zergatik? Hori jakitea oinarri-oinarrizkoa da proiektua behar bezala garatu dadin. Ezagutzari esker gure jarrerak eta jokabideak aldatuko ditugu eta apurka-apurka arduratsuagoak diren beste batzuk hartuko ditugu, eta horrela murriztuz joango da gure kontsumo-ohiturek ingurumenarengan duten eragina.

Prozesu horren inguruan dugun informazioa ez da nahikoa. Informazioa eta prestakuntza ezinbestekoak eta elkarren osagarriak dira. Horrexegatik deritzogu ezinbestekoa, txikia bada ere, sentsibilizazio-kanpainarekin batera prestakuntza-ikastaro bat antolatzeari.

Teoria-esparru horrek emango digu arrazoiak ezagutzeko eta gure jokabideak aldatu behar ditugula ulertzeko behar dugun oinarria. Teoria eman ondoren irakurketak egin beharko dira eta ondoren eztabaida sortuko da. Bertan ingurumenari, gizarteari eta ekonomiari buruzko zenbait gogoeta planteatuko dira, eta elkarrekiko lotura ezberdinak dituztenez koherentzia emango dien ikuspegi orokorra behar dutela ikusiko dugu.

### **Lehenengo saioa (hiru ordu)**

*Donostian 2013ko azaroaren 18 edo 21ean; Leioan 2014ko martxoaren lehen astean.*

- Ikastaroaren esparru orokorra. Ingurumena Garapen Iraunkorraren testuinguruan.
- Aurrekariak:
  - . Munduko erreferenteak.
  - . Europar Batasuneko erreferenteak.
  - . EAeko erreferente nabarmenak.
  - . Stockholm 1972tik Johannesburg 2002ra.
- Garapen Iraunkorra kontzeptuaren esanahia eta inplikazioak.
  - . Hazkunde ekonomikotik Garapen Iraunkorrera.
  - . Iraunkortasunari loturiko dimentsio anitzeko alderdiak.
  - . Baliabide naturalak modu iraunkorrean kudeatzeko irizpideak (ekoizpen- eta kontsumo-prozesua hasten denetik amaitzen denera arte).

### **Bigarren saioa (hiru ordu)**

*Donostian 2013ko abenduaren 2an; Leioan: 2014ko martxoaren azken astean.*

- Irakurketak eta adibide praktikoak.
- Bibliografia.

### **Hirugarren saioa (hiru ordu)**

*Donostian 2013ko abenduaren 17 eta 19an; Leioan: 2014ko apirilaren bigarren astean.*

- Lanen aurkezpena eta defentsa.

*Unibertsitate-ekimen honetan parte hartzeak kreditu akademikoak emango ditu, egindako ikasketa-planeko kreditu guztietatik gehienez 6 aitor daitezkeela xedatzen duen Unibertsitatei buruzko 4/2007 Lege Organikoaren 46. artikuluko i) paragrafoan ezarritakoari jarraiki eman ere.*

## **10 PARTAIDETZA**

Ingurumenarekiko begirunez jokatzeko moduari buruzko zalantzarik baduzu, eman horren berri Ekoskan kudeatzaileari edo Campus bietako hobekuntza-taldeetako edozein pertsonari. Eurek emango dizkizute behar dituzun erantzunak.

Halaber, ikasleei, irakasleei edo administrazio-arloko langileei agiri honek bilatzen duen xedea betetzeko egokia izan daitekeen beste edozein neurri bururatuz gero, proposatu egin dezake gida honetan sar dezagun. Guztien partaidetza eta inplikazioa da arrakasta eta geure zein gure inguruaren onura lortzeko bermerik handiena.

**UPV/EHUK gure esku jartzen dituen baliabideak publikoak direla jabetu gaitezen, hau da, gogoan har dezagun herritarrek mantentzen dituztela eta, horrenbestez, guztiok garela horien erantzule.**